

# Nafarkaria

Nafarroako Gehigarri Berezia / Ostirala, 1992ko otsailak 7

## Metropoli forala



FELIPE RIUS

Jorge Oteiza eskultore oriotarrak joan den asteartean sinatu zuen Iruñean bere lanik aipagarrienak Altzuzan paratzeko hitzarmena. Sain de Oiza arkitekto nafarrak eginen duen eraikia, museoa ezezik, Euskal Herria osora zabalduko den ibilaldi kulturalaren lehendabiziko harria izatea nahi du 84 urteko artistak, eta hori aurrera eramateko patronatu bat ere izendatuko da laster.

Horrela amaitu zituen Oteizak urte luzez Eusko Jaurlaritzarekin izan dituen tirabirak, eta bide batez, bukaera logikoa eman dio bere bizitzan zehar izan duen bilakaera artistikoari. Izan ere, gipuzkoarraren obran —«handia handien artean» izendatu dute batzuek— artearen ohizko mugak puskatzeko nahia gero eta nabariago egin da urteekin, eta «artearen sinesten ez zuela» esan bazuen ere, «gizakume berriak» sortzeko bere nahia da erabaki hori hartzera bultzatu duena. Oteiza, beraz, Nafarroan, Euskal Herria osoarendako, nahiz eta Nafarroak zer daukan, akaso, oraindik ohartuko ez den.



Zenbait urtetan atzerrian ibili ondoren ez zuen inor ezagutzen hirian. Ez zekien zergatik itzuli zen eta kalean zebilen egun batean bere aurretik zihoan gizona segitzea bururatu zitzaion. Leika txiki bat zeraman poltsan eta detektibe bat bailitzan ezezagun haren itzala bihurtuko zela erabaki zuen. Argazkiak eginez, bere etxera iritsi zen eta ordu pare batez itxoin ondoren, atera zen berriro. Eskuan poltsa bat zeraman eta beldur pixka batez bidairen bat egin behar zuela pentsatu zuen. Gizona oinez zihoan, eta ordu erdi batez edo ibili ondoren hiriaren inguruetara heldu ziren. Auzo zahar bat zen, eroritako etxeak eta zabor ugari besterik ez zen agertzen. Erakusketa batean ikusitako argazkien desolazioa etorri zitzaion burura eta egilearen esaldiaz oroitu zen: «gure obsesioen argazkiak egiten aritzen gara beti». Horma baten atzean izkutatu zen eta kamararen objektiboak tokiaren beste perspektiba bat eman zion. Gizonak zigarro bat erre zuen mugitu gabe eta itzali zuenean geltokira abiatu zen. Atzetik joan zitzaion mundu guztiaren zeharkaldia hastera zihoala jakin gabe. Eskerrak patrikan bere kreditu txartela zeraman.

Hiru urte iraun zuen bidaiak, baina ez zuen inoiz deskubritu, edo hala uste zuen behintzat. Gizonak ez zuen apenas inorekin hitzegin hiru urte haietan eta bere obsesio bakarra auzo zaharretako bazter despoplatuak zirela zirudien. Hiri batera iritsi bezain laister, gauzak hotelean uzten zituen eta suburbioetara abiatzen zen. Zigarro bat erretzen zuen pentsati eta gelara itzultzen zen, bere mugimendu guztiak erregistratzen ari zirela jakin gabe. Inoiz ez zuten hiri batean egun bat baino gehiago pasa eta azkenean, sorterrira ailegatzean, poltsa karretez beterik zeraman. Gizon berbera eta antzeko paisaiak argazki guztietan, desolazio postnuklearren irudiak ematen zuten.

Geltokian jeitsi zirenean, segimendua bertan behera uztea erabaki zuen, baina maitemindurik zegoen. Ez zen ezer esatera ausartzen ordea, eta azken agur isila emateko asmotan duela hiru urteko toki berean segitu zuen. Aldatua zegoen, eixe batzuk eraikitzen hasiak ziren eta ingurua beste itxura bat hartzen ari zen. Kamara atera zuen azken argazkia egiteko, baina gizona negarrez hasi zela ohartu zen eta ez zuen botoia sakatu, aurreko denbora guztian ez bezala bestearen intimitatean sartzea iruditu zitzaion. Leika poltsan gorde zuen eta etxera joan zen egongelarako landareak guztiz lehortuak egongo zirela pentsatuz.

## teizaren aukera logikoa



## Gure Aukera

### MUSIKA

**Izugarri** musika taldea arikuko da bihar Burlatako Axular Kultur Elkartean, bertako Kultura Batzordeak antolatutako, arratsaldeko zortzietan. Beranduago, hau da, gaueko hamar t'erdietan euskaldunen afaria izanen da. Bertan parte hartu nahi duenak Axularren eman behar du izena, otsailaren 6a baino lehenago.

**Celtas Cortos** musika taldeak kontzertua eskainiko du bihar larunbata, hilak zortzi, Gares dantzalekuan, Garesen bertan dagoena. Kontzertua gaueko hamaiketan izanen da. Folk musika talderik idartsuena ikusteko aukera ederra, eta Waterboys eta antzeko taldeak gogoratzeko tenorea.

**Death-metal** goitik behera Lakuntzako Ilargi dantzalekuan gaur bertan, ostirala, goizeko hamaiketatik aurrera kanpokoarendako, hamabietatik aurrera Sakankoendako. Bol-Thrower, Benediction eta Asphyx, belarriak lehertzeko.

**Julio Cageta eta Balerdi Balerdi** Altsasuko Gaztetxean, bihar larunbata, hilak zortzi, gaueko hamaretatik aurrera.

### MINTZALDIAK

**'Elgacena' Lizarraldeko aldizkari** ordezkaririk mintzatuko dira heldu den ostegunean, hilak 13, Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipalaren aretoan, arratsaldeko zortzietan. Almudi Elkarte Kulturaleko Literatura Atalak argitaratzen duen kultur aldizkari honi buruz hitzegin-go dute, poesiaz gehienbat, hau baita gehien aztertzen duten gaia.

### ERRAN DUTE

«Alli da euskara politikatik bereiz dezakeen bakarra».

**Jose Maria Satrustegi**  
Euskaltzaindiko idazkaria

«Atea hutsik dagoenean ere ezin dugu golik sartu».

**Pedro mari Zabalza**  
Osasunako entrenatzailea

«Euria hel dadila Jainkoari erregutu behar diogu, umiltasunez eta konfidaturik».

**Jose Maria Zirarda**  
Iruñeko apezpikua

«UPN PPrekin batu ondoren Trinitatearen misterioa bezalakoa da, inork ez bait daki nor den nor».

**Regionalistas Navarros**  
alderdi berria


## Arabarekin mugetan

Arabako mugarekin pega pega eginda, Kodezeko mendizerraren magalean dago Aguilar harana, Aguilar de Codes, Azuelo, Desojo, Espronceda, Uxanabilla, Marañon, Torralba eta Lapoblacion herriek osatuta.

Joan den mendean guda karlisten lekuko, horren hondar franko aurki daiteke bai eliza eta etxeetan nola gotorleku edota dorreetan ere. Torralba del Rion, Erdi Aroko gotorlekuen aztarnak daude ikusgai oraindik ere arkitektura zibilean. Kodezeko Ama Birjinaren basilizara bisitaldia da gomendagarria Torralbatik. Hasieran San Migeleko parrokia, ondoren basiliza eraiki zuen Kodezeko Juanek, eta mendeetan zehar birjinarenganako debozioa sendotuzten joan zen. Bertatik ere loarreko mendira ibilbidea egin daiteke, ordu bateko ibilaldia, alegia.

Aguilar de Codesen ere Erdi Aroko aztarna asko ikus daitezke etxeetan eta dorreetan, eta hortik irtenda Lapoblacionera doan bideko bihurtune batean, ikusmira ederra dago.

Uxanabillan, bestalde, famatua da



berritu den erretaula, eta zenbait zati oraindik Nafarroako Museoa ikusgai badaude ere, tokian tokiko gaureraz tokian bertan gozatu beha direla diotenei kasu egin beharko.

Acedon ere Acedoko Saenzen jauregia da mirestekoa, eta Ega ibaiaren gainean, Zuñiga eta Gastiaineko bideak uztar-tzen diren tokian, harrizko zubia dago, 'Errotaberriko zubia'.

### ZINEMA

**Iruñeko Golem Zinemak 'Filmogolem'** izeneko zikloari ekin berri dio, filme ezagunak eta kalitate handikoak, jatorrizko bertsiotetan, eskaintzeko asmoz. Atzo bertan hasi zen zikloa, 'Barton Fink' filmearekin, eta hurrengo tituluak benetan erakargarriak dira. Horrela, heldu den ostegunean, hilak 13, 'Citizen

Kane' Orson Wellesen filme ospetsua ikusteko parada izanen da, «zinemaren historian filmerik hobere-na» izendatu dutena. Ondoren, zerranda erakargarri bat, ostegunero. Zinemazaleen gozamenarako izan dadila.

**'Sri Lanka: Indiko Ozeanoko perla'** gaiari buruz diapositiba emandakoa izanen da gaur, arratsaldeko

zortzietan, Club Deportivo Navarro taldeak Jarauta kalean duen aretoan. Mikel Etxaniz izanen da emanaldia zuzenduko duena.

**'La deuda interna'** filmea, 1988. urteko Berlineko jaialdian bigarren saria lortu zuena, eskainiko dute datorren ostegunean, hilak 13, Tafallako Zinema Españolean, 20.00etan eta 22.30etan. Ekitaldi hau Jaialdian Hautapen Zikloaren barruan dago,

### ASTEKO PERTSONAIK

#### Nacho Duato



Dantzaria

Ballet Lirico Nacionaleko zuzendaria aste honetan izan da Iruñean, bertako Udalak antolatu duen 'Antzerkiarekin Topaketak' izeneko zikloari hasiera emateko. Valencian orain dela 34 urte jaio zen dantzari honek polemika piztu du konpainian, lana egiteko era dela kausa, eta bere izaera bereziagatik. Hainbeste, ezen, asteazken honetan bertan, dantzariak bere jokaera salatu zuten, Iruñean emandako prentsaurrekoan. Dantzarien ordezkariek kexu agertu ziren Duatoren jarrera dela eta, eta taldearen etorkizuna «oso iluna» zela adierazi zuten. «Duatok ez ditu dantzari onak nahi, bere atzetik joango diren dantzariak baizik» esan zuten. Zuzendariak, berriaz, ez zuen erantzunik eman nahi izan.

#### Modesto Urbiola



Buruzagi abertzalea

Pasa den igandean hil zen Iruñean, 89 urte zituela, Modesto Urbiola buruzagi abertzale historikoa, gaitasun luze baten ondorioz. Urbiola, Jose Antonio Urbiola Nafarroako EAJko buruzagiaren aita, 1917an sartu zen EAJn, eta hamahiru urte beranduago Agoitzen osatu zen batzordearen fundatzaileetakoa izan zen. 1941ean atxilotu zuten eta heriotz zigorra ere ezarri zioten baina azkenean hemeretzi urteko gartzela zigorrera kondenatu zuten. Horiatariko bost bete zituen gartzela ezberdinetan. Ondoren, eta EAJren barruan izan zen bereizketaren ondorioz, Eusko Alkartasun aritu zen eta pasa den hauteskundeetan alderdi honen zerrendan aurkeztu zen. Legarian jaioa, Agoitzen eman zuen bere bizitza gehiena.

#### Jesus Gaztañaga



Apaiza

Joan den ostiralean hil zen Jesus Gaztañaga Garmendia Errezilgo apaiza, 'Diario de Navarra' egunkarian argitaratzen den 'Nafar. Izkuntza' orrialdeen arduraduna. Duela 58 urte Asteasun (Gipuzkoa) jaioa, oso lotuta zegoen ikastole-tako munduarekin, eta Azpeitiko Karmelo Etxegarai ikastolako zuzendaria izana zen. Ondoren Hernaniko Urumea ikastolan ere lan egin zuen. Euskerazaintzako partaidea, 'Zeruko Argia-ren' kolaboratzaile izan urte luzez, eta baita Donostiako 'Diario Vasco' egunkariarena ere. Egun, esan bezala, astero argitaratzen den 'Nafar Izkuntza' orrialdearen koordinatzaile lanean aritzen zen, eta Iruñera zetorrela hil zen, bihotzekoak jota.

Tafallako Kultur Patronatuak antolatutako.

### ERAKUSKETAK

**Robert Capa** argazkilaria hungariarren erakusketa ikusgai dago Iruñeko Udalaren Hiritar Eragintza sailaren aretoan, Zapateria kalean. Inoiz izandako argazkilaririk on eta famatuenetakoa ederki ezaguna egin zuen Gerra Zibilaren garaiko argazkia, errepublikar aldeko miliziano bati ateratakoa. Horretaz gainera, II Mundu Gerran argazkilaria lanetan aritu zen eta Indochinan zegoela, 1954ean, vietminh mina bat zapaldu eta bertan hil zen, berrogei urte zituela.

### IKASTAROK

**'Dantza Afro'** izeneko ikastaro trinkoa izanen da asteburu honetan Iruñean IPESeK antolatutako. Elzenita Maria de Jesus emakume brasildarra izango da ikastaroa emango duena, dantza Afro-Bahianako irakaslea bait da. Gaur arratsaldeko zazpitan hasiko da dantza saioa, eta bederatzik arte iraungo du. Bihar, goizez eta arratsaldez izanen da 10.00etatik 13.00etara eta 17.00etatik 20.00etara.

**'Yoga, erlaxazio teknikak eta masaia'** ikastaroa prestatu du Andrea Emakumearen Arretarako Zentruak, segurtasun pertsonal handiagoko lortzeko asmoarekin. Ikastaroa martxoan hasiko da eta ekainean bukatu, eta astearte arratsalde gutzietan emanen dute. 20.00etatik 21.30ak arte. Informazio gehiago lortu edo izena eman nahi duenak Navarrerria kalera jo behar du.

### ADI !

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Astelehenetan 22.00etatik 23.00etara... **Gaueko irrintzia** musika saioa.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 13.00etatik 13.45etara... **Informazio Saioa** Baztan, Male-rra eta Bortzirietako informazioa. Elizondo, Bera eta Lesaka egunero.

#### HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Asteartean FMn 22.00etatik 23.00etara... **Gautxori** irratsaio musikalari. Narrazioak.

#### RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.



# Psikologia, pisuzko lekukoa

**P**sikologia juridikoa gero eta pisu handiagoa hartzen ari da familiatzko eta penalezko epaitegietan, akusatuen egoera psikologikoa aringarri bezala erabiltzeko. Nafarroa aitzindaria da arlo honetan, eta 1987tik ofiziozko txanda dauka paratuta gero eta ugariagoak diren eskaerei aurre egiteko. Hala ere, kezka bizia dago psikologoen artean, akusatuen azterketak bakarrik ez baina justiziako arlo guztietara ere zabaltzeko beren azterketak.

1962a da, Jenkins izeneko epaiketa batean, psikologiaren garrantzia onartu bait zuen lehendabiziz epaile batek EEBBetan.

Estatu espainolean 80ko hamarkada arte ez dira psikologoak azterketak erabiltzen, baina hortik aurrera, eta bereziki Nafarroan, nolabait teko maiztasuna hartzen dute eskaerak. Hori dela eta, 1987an ofiziozko txanda paratu zen martxan Nafarroan, epaile edota abokatuengandik jasotzen ziren eskaerei erantzuna emateko.

Egun hogeitamar pertsona inguru daude txanda honetan sartuta, eta sortu zenetik, Juan Romero Nafarroako Psikologo Elkargoko presidentek adierazi duenez, 300 bat epaiketetan hartu dute parte. Horrelako peritu-lanetan aritzeko, zenbait ikastaro antolatu du elkargoak Nafarroa osoan zehar, baina psikologia juridikoa ez dago espezialitate berezitat hartua. «Lan egiten dutenak —azaltzen du Romerok— psikologiaren beste arlotik datoz, eta bere berezitasuna ez dago lanetan, lantzen den eremuan baizik».

Bi arlo dira bereziki gaur egun jorratzen direnak: penaleko eta familiako epaitegiak. Prozesua antzekoa da bi arlotan. Penaleko epaiketetan alde batek —normalenean abokatuak—, azterketa psikologikoa eskatzen du akusatuendako, horrek beste ikuspuntu bat eman diezaiola



Psikologia epaiketara sartzeko lehen ahaleginak Ingalaterra eta EEBBetan hasi ziren XIX mendearen hondarrean. J. C. RUIZ

keelakoan erabakiari, eta epaileak horrela onartuta, ofiziozko psikologo baten azterketa eskatzen da. Honek egiten du azterketa, eta frogak gisa aurkezten du epaiketan.

Familiakoetan, familia da aztertu beharrekoa, eta bertan erabakitzen dira partaideen egoera psikologikoa, arazoak eta abar.

Penalezko epaiketetako azterketa psikologikoa gehienak —% 80— drogomenpekotasunarekin dauka lotuta, «baina ez hor

daudelako arazo handienak —dio Romerok—, baizik eta epaiketa gehienak ere horri buruzkoak direlako».

Psikologendako hasieran aurriritzi eta errezelo franko bazegoen ere, gero eta onespene handiagoa dute justiziaren partaideen artean, «epaiketak egitea oso zaila delako, eta ahalik eta datu gehien izanda eskurtartean, orduan eta hobeki». Orobat, akusatuen aldetik ere kolaboraziorako joera nabarmena dago, elkargoan azaltzen dutenaren arabera, «frankotan haien aldeko iritzia delako». Hala ere, ez da beti horrela, batzutan azterketa psikologikoa batek akusatuaren egoera psikologikoa orekatua adierazi dezakeelako.

«Horrek hauts dezake abokatuaren balizko defentsa bat».

Nafarroa, aintzindaria izateaz gain, gaur egun horrelako ofiziozko txanda iraunkorrari eusten dion bakarra da Estatu osoan, Madrilekin batera, baina beste epaitegietan paratzeko ahaleginak gero eta ugariagoak dira. Hain zuzen ere, hemendik aurrera, eta Espainiako Justizia Ministeritzak berriki onartu duenaren arabera, peritu hauen lana ordainduko da ministeritzaren beraren diruarekin. Orobat, eta zerbitzua hobetzearren, ihardunaldi klinikoak egiteko asmoa badago peritu-lan hauek orain arte egin edota egiten ari diren psikologoaren artean, esperientziak elkartrukatzeko.



## Psikologo baten komerkiak

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Epaiaketa batean biltzen diren interes kontrajarriak eta pertsonalitate ezberdinek benetako nahasteak eta egoera bitxiak sortzen dutela jakina da gertutik mundu hau ezagutzen dutenentzako. Horregatik, epaile, abokatu, biktime eta akusatuen artean lehendabiziz murgiltzen den edonori ez zaio errez ahaztuko.

Maria Luisa Ziordia psikologoak pasa den udan jaso zuen azterketa psikologikoa egiteko eskaera, bi drogazaleri egiten ari zitzaizkion epaiketa baterako. Lehendabizizko ustekabea azterketa abokatu pribatu batek eskatuta zela jakitean izan zuen psikologoak, elkargoak soilik ofiziozko txandakoak eginak bait zituen ordura

arte. Baldintza bakarra paratu zuen orduan psikologoak: kobratzearena, «abokatu pribatua zelako». Honek, baina, ezezkia eman zion, akusatuei «oso gutxi» kobratu behar zirela argudiatuta.

Bi hilabete pasa eta berriro deia jaso zuen elkargoak, eta epailearekin hitzegitean, honek «mesede pertsonal» modura hartzeko eskatu zion Ziordiari, epaiketa bi aldiz atzeratuta zegoela eta. Hala ere, hitza eman zion zerbait kobratuko zuela. Psikologoak, amore eman behar eta akusatuei azterketa egiteari ekin zion.

Hor jaso zuen bigarren ustekabea, testak egiten zituen bitartean, bere poltsan zituen bi mila pezeta lapurtu bait zioten. «Izugarrizko haserrearekin», epaiketara azaldu zen eta hor

ere fiskala eta abokatuaren arteko tirabiren erdian egokitu zitzaion. «Akusatuetakoa bat alkoholikoa zen eta sartu baino lehen abokatuak esan zidan ea horrek izaera aldaraz zezakeen. Horrelakorik esatea, jakina, guztiz nere arlotik kanpo dago, guk soilik azterketak egiten ditugulako eta tirabirak izan nituen abokatuarekin, horiek, askotan, komeni zaizena baino ez bait dute aditu nahi».

Epaietan, Ziordia errehabilitaziorako zentruan sartzeko gomendioa eman zuen bere azterketan, baina epaileak ez zuen frogatutzat eman akusatuaren alkoholismoa, azterketa psikologikoa kontrakoa garbi azaldu arren.

Maria Luisa Ziordia oraindik ez du epaiketa kobratu.

## Biktimei eman beharreko laguntza zintzilik dagoen gaitako bat

P.U. / IRUNEA

Epaietan egiten diren lanak ezagunenak izanda ere, beste arlo asko jorratzeke dauka Psikologia Juridikoak, horri ere heltzeko asmoa badago ere. Urte guzti hauetan akusatuen arloa landu da bereziki —azterketa psikologikoa, peritu lanak eta abar—, baina oraindik ez da ikutu ere egin biktimen arloa.

Juana Biedma familia psikologoak azaltzen duenez, honek arazo eta kontraesan franko sortzen dizkio psikologoari, «askotan delitu bat egin duenaren egoera aztertzen dugulako, baina ez benetan mina jasan duenarena. Horiek dira, azken finean, segimendu eta tratamendu berezia behar dutenak, egindako kalteen ondorioak bigundu ahal izateko».

Horrekin batera, beste hainbat arlo dute gogoan psikologo juridikoak, EEBBetan eta Ingalaterran aspaldi jorratuta daudenak. Esate batera, epaiketa batean parte hartzen duten alde guztiak, lekukoetatik hasi eta epaileekin amaituz. «Lekukoak aukeratzeko prozesuan ere hartu beharko genuke parte —dio Biedmak—, ego-

kienak eta inpartzialenak aukeratzeko. Adibidez, bortxaketa bateko epaiketa batean, horrekin nolabait eko esperientziak izan dituzten lekukoak paratzen badira, erruduna izanda ere, akusatuak ez luke aukera handirik izango. Orobat, epaile eta abokatuak ere itaunketa orekatu eta egoiak egiten irakatsi beharko litzaizke, eta oso garrantzitsua izango litzateke akusatu eta biktimen jarraitmendua egitea, gaitza zertan dagoen esatearekin deus gutxi egiten dugulako».

Poliziaren arloan ere presentzia gehiago aldarrikatzen dute psikologoak, «bai poliziak aukeratzeko orduan nola egoera zailak baloratzen irakasteko. Ingalaterran, polizia batek pistola ateratzen badu, edozein kasutan izanda ere, hurrengo egunean psikologoarengana joan behar du, azterketa egin diezaioten».

Espainiako Poliziarekin horretarako inolako harremanik ez dutela aitortzen badute ere, beste poliziek lana egiten dute psikologoak eta Nafarroan, foruzain eta udaltzainen aukeraketan eta hezkuntzan hartzen dute parte.



## OTEIZA, HANDIA HANDIEN ARTEAN

## Oteiza, euskal nortasuna bilatu nahi duen artista

MATTIN KAPITANSORO / IRUNEA

Jorge Oteizaren azken erabakia artistak betidanik izan duen barne koherentziarekin biziki lotuta dago. Inork ez du harritu behar, horrela, proiektu utopikoetan buru-belarri sartzeak, 1957tik honantz egin duen bidean utopia eta errealtatearen arteko zubi gaineko ibilaldia burutu bait du Orion argia ikusi zuen eskultore handiak.

Sao Paulo (Brasil) IV. Biurtekoan Sari Internazionala jaso ondoren —Morandi eta Ben Nicholson artistekin batera— artearen arlo ezberdinak biltzen saiatzeari ekin zion, eta egin beharreko azterketa esperimentalak egin ondoren, eskulturari utzi zion.

Ordurako punta puntako eskultorea zen, baina orduan ere buruan zuen bere bizitzaren ikuspuntua laburbilduko zuen teoria: 'Aldaketen Legea'. Horren arabera, eta Oteiza berak gerxeago adieraziko zuenez, artista esperimental gisa eginiko bere bidea akaberan zegoen, eta beste arlotara pasatzeko garaia iritsi zitzaion.

Orietarrak gerora esplikatu zuenez, «ulertu nuen eskulturarik gabe gelditu nintzela, espaziorik gabe, eta orduan ulertu nuen nik aurkitutako soluzioa, horren esanahia. Ohartu nintzen bizitza berria sortzen zela nere baitan, eta orduan jakin nuen ordura arte artistarengandik urrun zeuden bete-beharretan murgildu beharra nekala».

Ordutik hona, Oteizaren bizitza eta lanak ildo horretatik jo dute. Baina ez du, ordea, erantzun edo merezimenu handirik jaso, beste batzuek baino askoz gutxiago behinik behin, eskultoreen beraien artean izan ezik.

Euskal Herriarendako berak funtsezkotzat jotzen zituen proiektu askok, horrela, etengabeko ezezkoa jaso zuten gobernatzeko ardura zuten politikarien aldetik, eta horrek ez-kortasunerako bidera eraman bazuen ere, ez du amore eman nahi izan, azkenen ere lortu bait du Nafarroan bere helburuetako bat martxan paratzeko nolabaiteko adostasuna.

Ezinbestekoa da bizitzan zehar eraikitzeko bidean izan dituen proiektu horietako batzuk gogoratzea: 1988an Sabino Arana Fundazioa eratu nahi izan zuen, arte sortzaileak egiteko. Honek ez zuen au-

rrera egin, eta Donostiako Ametzagainako hilerriari ekin zion. Orduan adierazi zuen bezala, Donostiak bazuen ordurako itsaso eta lurarerekiko atxekimendua, eta zeruarekikoa falta zen hirian. Itsasoarekin lotura, Oteizaren arabera, Txillidaren 'Haizeen Orratzen' zegoen, lurarekin, Kontxako hondartzan. Zeruarekin Ametzagainan izango zen, hilerri berezi baten bidez, hildakoak lurperatu baino zerura begira paratu nahi izan balitu bezala.

Orduan Gipuzkoako hiriburuko alkate zen EAJko Ramon Labaienek eman zion ezezkoak Orioko eskultorearen erasorik gogorrenetakoa ekarri zuen. Haserre hartan «hortzaile» deitu zituen Jorge Oteizak politikoz guztiak.

Iragarri zuen orduan bere etsipena, baina Sain de Oiza arkitektoarekin batera, Bilboko Alhondigaren proiektuan buru-belarri hasi zen gogoz. Kubo batean, «herriak behar zuten ingurune artistikoa» eraikiko zuen artistak, eta zenbait agintarien onespina jaso arren, ondoren sortu zen polemika biziak ere bertan behe-bera utzi zuen Bilbo erdian jaso nahi zuten Kuboaren proiektua.


Orain, Altzuzan, bere lanak bilduko dituen eraikina da bere ametsa, eta hortik sortuko den ibilaldi kulturala, Euskal Herria osoan zehar, «gizakume berriak» sortzeko da egina artista

berak behin eta berriro nabarmendu duenez. Buru-belarri, beraz, lan antropologikoetan, Georgia eta Caucasora bidaia egiteko asmoa ere iragarri bait zuen joan

den asteartean prentsa aurrean egini-ko agerraldian. «Etorkizuna jatorrian dagoela» dion lehari jarraiki, bertako ondarrak aztertzea da bere gogoara orain, bai hizkuntza aldetik nola antropologia mailan. Ezagutzen dutenek esaten dute Urrezko Ardilaruen bila dabilela.

Oteiza euskal nortasunaren bila dabil, akaso bere barnean dagoeneko aurkituta badauka ere.

Oteizak Altzuzan paratuko dituen lanek bildumarik garrantzitsuena ostuko dute, dudarik gabe, denak originalak ez izanda ere. Artistak betidanik izan du joera berezia bere lanen kopiak egiteko, tamaina txikian, eta horiek izango dira Eguesibarreko herri txikian ikusi ahal izango direnak.



Oteiza

Altzuzan bilduko den obra handiaren garrantziak ohartarazteko Nafarroako bi adituek —Jose Ramon Anda Bakaikuko eskultorea eta Pedro Manterola pintorea— egunotan egin duten adierazpenak nahikoa esanguratsuak dira. Biak aukeratu ditu Jorge Oteizak bere izena eramango duen fundazioaren partaideak izateko.

Andak adierazi duenez, oriotararen lana «dauden aurreratueneta-

koak dira, eta Nafarroak izugarriko suertea izan du erabaki honetan. Loteria jaso du jokatu gabe». Mantrolak ere antzekoak bota zituen. «Handia handien artean da Oteiza, eta jendearendako bere lana zaila izanda ere, garrantzitsuena bizitzeko gogoak eman digula izanen da, akaso. Lana bera baino garrantzitsua da hori».


Hala ere, biek adierazi zuten bere kezka Nafarroa bezalako lurraldeak

jasotzeagatik tamaina honetako lana. «Oteiza oso aurreratua da, bizitzaren arlo guztietan, eta Nafarroa kontserbadorea eta atzerakoia da oraindik» esan zuen Andak. «Honek kontraesan handiak sor ditzake, Nafarroa oraindik ez bait da jabetu jaso duenaren garrantziak». Honek, Mantrolaren ustez, «hezkuntza eta kultura osoa, orokorrean hartuta, birplan-teatzeko parada eman beharko zigun».





## OTEIZA, HANDIA HANDIEN ARTEAN



# Aldaketen legea

M.K. / IRUNEA

Oteizaren aportaziorik aipagarriena, behintzat hala diote adituek, 'Aldaketen legea' deritzana izan da. Bertan, artistak bere bilakaera artistikoari zentzua emateaz gain, arteak izan duen aldaketa eta bilakaeraren teoria bat osatu zuen, eta berak aterako ondorioen arabera, balantzea eta azterketa sakona egiteko garaia heldu zuen. Hau da, arteak behin bere zikloa amaituta...

...beste arloetara zabaldu behar zituen bere ikasgaiak, gizakume osoak lortzeko.

Oteizak galdera bat egiten du bere teoriari hasiera emateko: «Zer esanper du gizarteak artistarengandik?». Bere ustez, joera artistiko batzuei beste batzuek segitzen diete, etengabe, «sekulan bilakaera honek amaierarik izango ez balu bezala». Hori dela eta, historian zehar izan den prozesu hau azaltzeko lege bat asmatu zuen.

Oteizarendako 1972ko lana.

gizakumeak dituen beldur eta nahigabe guztiak sendotu egin behar dira, «bere izaera ahula izaera libre eta natural bilakatzeko». Hori dela eta, artistak sentsibilitatea itzuli behar dio gizarteari, «eta bere betebeharrak, berez, bikoitza da. Bat artearen barruan, bestea, lehendabizikoa amaitzen duenean, kanpoan».

Artista eta gizartea, Oteizari jarraiki, garaiz jabetuko balira lortutako emaitzez, «biak prest egongo lirarteke bizitzarekin bat egiteko (...), baina artistak behar den heziketa ez

badu, behin eta berriro errepikatzen du ikasitakoa».

'Aldaketen legean' artearen bilakaerak eta une gorenak azaltzen saiatu da Oteiza. Lege honek bi zati ditu. Lehendabizikoa, espresioa gorantz doa etengabe, eskultura gero eta beteago egiten da. Bigarren aldantzikozko prozesua izaten da, eskultura husten da, deuseztatzen da, espazioak dena menderatu arte.


Oteizak adierazten duenez,

tako energia eta seriotasun falta zela eta».

Nola jakin orduan noiz amaitzen den ikerketa bat eta noiz hasten den hurrengoa? Horri eman zion erantzuna Oteizak 'Aldaketen legean'. Berak dionez, «eskema logiko baten bidez, antzeman daiteke lortutako esperientziak eta falta direnak. Tendentzia eta joera artistikoen bilakerei segi dakieke, eta horrela zehazten da noiz utzi egin behar diren, dagoeneko agortuta dudelako. Horrela denbora aurreratzeko, eta jakin ahal da artistak zenbat denbora egon behar duen artearen barruan eta noiz atera behar duen hortik».

Ondoren, bi betebeharrak ditu artistak. Lehendabizikoa, bere barneko ahalmen guztiei askatasuna eman behar dizkie, nahi dituen hizkuntzetan hitzegin ahal izateko. Oteizak azaltzen duenez, «zinema edo musika bere arloak balira bezala aldarrikatzen ez duen artistak, ez du ezer ere ulertu bere pintura edota bere eskulturaz».

Bigarrena, gizarteari dago zuzenduta, gizarteak berak artistak eman behar diona ulertzeko kapaza izan behar duelako. «Arteak ez du hézitzen, ez du ezer ere transmititzen, eta horrela izanda, artistak soilik horniduraren antzeko lana beteko du (...). Puntu honetan, egin behar dena zera da: ordura arte lortutakoa sailkatu, planifikatu eta besteei azaldu. Bada garaia hezkuntza goitik behera berritzeko eta eskola berriak irekitzeko. Eta denok eskolara joateko».



LAINDA

1957an lana husten ari zela konturatu zen, «eta somatu nuen zerbait gertatzen ari zitzaidala, barru barruko beharra banuela. (...) Hurrengo urtean, azkenean, konturatu nintzen estatua hutsik gelditzen zela, baina bizitza berria nuela. (...) Orduan ekin nion nere bilakaera aztertzeari, eta ulertu nuen nere aldaketa guztiek nolabaiteko logika bazutela, eta beste egileek izan zuten bilakaera bera aztertutako nuen. Kasu batzutan oso bilakaera paretsuak aurkitu nituen, gehienetan izutu egin nintzen galdu-

mintzoak

## Norantz doa Udal Ikastola?

● Hamabost urtez eragozpen asko izan ondoren, Udal Ikastola gaur egun errealitate sendoa da. Orduko guraso eta irakasle talde mugatu eta pozez beteak lortu du, lokal eta baliabide eza, udal talde gehien interesik eza, Hezkuntza eta Ikerketa Ministeritzako ordezkarien zabarkeria, Euskararen Legearen aplikazio zentzugabea... gainditu ondoren, lortu du, diot, Nafarroako ikastolarik handiena sendotzea.

Aldizka iristen dira prentsara Udal Ikastolan sortzen diren gatazken oihartzunak. Berrienak hauek izan dira: nahiko plazarik ez egotea matrikulazio garaian (urtez urte haur gehiago geratzen da kanpoan plazarik gabe) talde psikopedagogikorik ez egotea eta horrek beste behin jendea gehiago mobilizatzea behartu du, Nafarroako Gobernuak ikastetxe guztietan eta gutxi balitz ikastetxe pribatu batzuetan eman ematen dituen laguntzak lortzeko.

Administrazio desberdinentzat (Hezkuntza eta Ikerketa Ministeritza, Nafarroako Gobernua, Iruñeko Udala) Udal Ikastola gainetik kendu ezin izan duten traba da. Ez dira ausartu edo ez dute nahi izan konponbiderik aurkitu Komunitate horretan ikasgaiak euskaraz ematen dituen OHoko zentru publiko handienaren etorkizunerako.

Ez dakigu zein asmo duen Administrazioak Udal Ikastolaren etorkizunari buruz. Ez zaizkigu baliagarriak esamesak eta usteak, ezin dezakegu itxaron Administrazioaren 'konponbidea' besterik gabe etorriko zaigunik, hezkuntza proiektu horretan nolabait parte dugu kontutan hartu gabe.

Zer egin dezakegu hori ez gertatzeko?

Uste dut lehenik Udal Ikastolako hezkuntza komunitate osoa ados jarri behar dela etorkizunean zer nahi dugun, zer zentru eredura bideratu behar dugun erabakitzeke.

Nire iritzia beste askoren artean lagungarria izatea baino ez du nahi, beharrezkoa den debate horren hasieran. Debate horrek ez du aurreritza izan behar, aukera sindikal, politiko edo ideologiko jakin bat edo beste dugun irakaslearen artean.

Zaila da desadostasunei ez errepartzeko, baina era berean, beharrezkoa da bigarren mailan uztea, orain gure etorkizuneko alternatiba modu bateratuen planteatzea lortu nahi delako. Horrela egiten ez badugu, Administrazioak ezarriko dizkigu baldintzak.

Uste osoa dut bana gintzaketan arrazoiak baino askoz gehiago direla elkartzen gaituztenak. Udal

Ikastolaren alde egin dugun aukera bateratua da argudiorik onena.

Geure seme-alaben heziketarako Axular, Amaiur edo Hegoalde udal ikastolak aukeratu baditugu guraso asko eta askok, bi arrazoi-rengatik da: hezkuntza euskaraz delako eta zentru publikoak direlako.

Ezaugarri hori egia bada (nik horrela uste dut) funtsean ados jartzeko moduan egongo gara: aukeratu dugun zentru ereduari eusteko beharra.

Historiak eredu baliagarria dela erakutsi du eta aurrerapausua dela pedagogia eta hizkuntza ikuspegitik (gogora dezagun Euskararen Legearen arabera Iruñea ez dagoela 'euskaradunen erreserban').

Argi utzi nahi dut horrek ez duela esan nahi

zentru horiek onenak eta bakarrak direla defendatzen dudarik eta besteak baztertu. Geure hizkuntza berreskuratzeko zenbait urte borrokan eman ondoren uste dut esan dezakegula ez dagoela aukera bakarra eta gaur egun konpartitutako zentru asko ditugula (euskarazko eta gaztelarazko lineak) edo euskalduntze prozesuan eginkizun garrantzitsua bete duten edo betetzen duten eredu desberdinetakoak.

Baina uste dut Udal Ikastolan argi eduki behar dugula ez dela hori gure debatea. Zentru mota eta ereduak, horien autonomia maila, titularitatea, desberdintasunak gutxitzeko apostua, eskaintza egotea geure herrialdeko zona eta herri txiki guztietan da diseinatzen lagundu behar dugun hizkuntza politikaren erronka globala, beti defendatu dugun Euskal Eskola Publikoaren ereduaren debatea.

Geure debateak ez du oinarritu behar irakasleek lan kontratua eduki edo funtzionarioen plantiletara pasatzea nahi duten jakitean.

Orain, 92ko une honetan lehen tasuna duen egiteko Udal Ikastolaren etorkizuna eztabaidatzen hastea da geure proiektuaren baliagarritasun kontrastatzen oinarrituz, alegia, zentru publiko euskalduna (lerro guztiak euskaraz dituelarik), zeinak autonomia handia izan behar duen egungo bere eredu pedagogiko eta antolatzailea sendotu eta garatzeko.

Hori da gure erronka eta uste osoa dut guraso eta irakaslerik gehienak ados jarriko garelako funtsean, etorkizuneko euskal eskola publikoaren zutabe garrantzitsua izan daitekeen proiektua defendatzean.



Enrique Garbayo Irakaslea



**TXALAPARTA**  
Gure liburuak

TAFALLA (Nafarroa)

78 Postakutza

Tel. (948- 70 32 77)



## Gazteendako Zokoa

### Usapal arrunta

*Streptopelia turtur*  
Bidasoa-Baztan aldera  
urria  
Usoa baino txikixeagoa  
Bikorjale amorratua



### Bular arrosakoa

Usoa baino txikixeagoa, bera bezain ezaguna da ehiztarien artean, eta oso zabalduta dago Nafarroa osoan zehar, iparraldean izan ezik. Hala ere, baditu usoaren alde ederki desberdintzen dituen zenbait ezaugarri. Horrela, bular aldera arrosa du kolorea, eta marra batzuk baditu, beltzak zein txuriak, lepoan.

Batez ere bikorrak dira bere gogoko elikagai, bai landareetatik ateratakoak nola garia, garagarra edota ekiloreetatik, uztailearen aurrean. Sastraka eta zuhaitz txikietan aritzen da, eta txofrakia oso sinplea izaten da, txotxamarrez osatuta.

Bi arraultz erruten ditu, bi astez, eta txorikumeak hiru astez elikatzen dituzte gurasoek. Hortik aurrera hegan egiteko gauza badira.

Migrazioari dagokionez, apirillean sartzen da Penintsulan, eta ekaina arte ikusten ahal dira etorrerak. Hegalaldi hauek oso nabariak dira, baina abuztua aldera itzultzeko izaten dena, ordea, ez da horrelakoa, eta ezkutu samar izaten ohi da.

Nafarroan, zuhaitzi bakanetan egoten da, bereziki inguruan soroak daudenean. Hain zuzen ere, Erribera eta Nafarroako Erdialdea dira zonalderik garrantzitsuenak horretarako. Oso urria da, ordea, Bidasoa eta Baztan aldera, eta baita Erronkari eta Zaraitzun ere.

### UXUE MENDINUETA

Historia hau Lizarra ondoko herri txiki batean gertatu zen, orain dela hogeiren bat urte. Herri honetan hogeitaz bixtanle bakarrik bizi ziren, mendi batean. Horren tontorrean jauregi eder bat zegoen.

Jauregi hartan lamia bat bizi zen, eta hura bai zela polita eta ederra! Ilea luzea zuen —limoiaren kolorekoa—, bere begiak oso bitxiak ziren baina oso politak, lehoi batenen antzekoak, eta beti bere soineko zuri zetazkoarekin ibiltzen zen. Bere ile polita egunero orrazten zuen lau aldiz, eta nire ahoa urtzen zitzaidan bere leihotik ikusten nuen aldiro, oso ederra bait zen.

Behin mendi tontorrera joan behar izan nuen lau egunetarako, zeren nire osaba gaizkitu eta zaindu behar nizkion ardiak. Gaua heldu zen, nik su eder bat egin nuen, eta hantxe hasi nintzen ametsetan. Nire ametsak bete ezinezkoak ziren, baina nik ondo pasatzen nuen.

Herrira jeitshi nintzenean Amerikako osabat bat etorri zen ni eramateko. Nik hasieran ez nuen joan nahi, baina azkenean joan behar izan nuen.

Beti gogoan nuen lamia, nire buruak ezin zuen ahaztu holako lore polita. Bi hilabete pasa ziren, zaila egiten zitzaidan bera ahaztea, eta horregatik nire larritasunarekin nire lagun Juan txori idatzi nion.

Juantxo oso gizon indartsu eta azkarra zen, ile beltza eta begi marroiak zituena, eta nire arazo guztiak kontatu nizkion, zer gertatzen zitzaidan, eta abar... Orduan Juantxo eta nik istoria bat asmatu genuen, nire osabari kontatzeko. Asteburu batean nire jaioterri joan nintzen Juantxorekin antolatzeko.

Ailegatu orduko nire lamia ederra ikustera joan nintzen. Beti bezala zegoen. Juantxok esan zidan deitzeko edo nire ahalmenez lamia erakartzeko eta horrela nitaz maitemintzeko.

Gau hartan asko pentsatu nuen eta berarekin hitz egitea lortu nuen. Esan nion bera zela nire ametsetako lamia, asko maite nuela eta berarekin bizi nahi nuela bera laguntzeko. Orduan bera hasi zen kontatzen bere arazo guztiak, baina bakarrik ajola ziona, eta gauza gehienak gainetik kontatu zizkidan.

Nik adierazi nion egia kontatzeko,

# Ipuina



JOSE RAMON TELLERIA

konfidantzako mutila nintzela. Berak esan zidan ulertu beharra nuela berak maite ninduela eta mesedez ulertzeko. Orduan asko haserretu nintzen eta bapatean bera desagertuta zegoen.

Eguna argitu bezain laister Juantxorekin egon nintzen eta dena kontatu nion. Bera nahiko harrituta gelditu zen eta aholkatu zidan sorgin batengana joateko.

Hurrengo egunean Iruñean zegoen sorgin batengana joan nintzen eta nire arazo guztiak kontatu nizkion, zer gertatzen zitzaidan eta nola izan behar nuen berarekin elkarriketa bat. Sorginak esan zidan berarekin ezin nuela hitz egin baizik eta pentsamendu hutsa zela. Halako batean sorgina hizketan hasi zen.

—Harrituta gelditu naiz. Zure lamiarekin hitz egin dut baina bera hilda dago eta mundu honetan ez da izan

inoiz. Esan dit gaur gauerako bere agintariek zu ikusteko baimena eman diotela, eta zuk asko sufririko duzula, baina hori ez gure errealitatean, beraienean baizik. Hori ez dugu guk ikusten, nik bezalako jendea baizik.

Nik esan nion haserretuta:

—Gaztelu batean bizi da, eta niri adarrik ez jo.

Berak lasai hartu zuen, eta esan zidan lasai egoteko, hori dena nere imajiazioa zela.

Gaua ailegatu zen, eta dena antolatu zuen sorginak, eta orduan esan zidan: —Beste ezuste bat dago zuretzat, baina lamiak berak esango dizu.

—Dena ixil ixila gelditu zen eta paretan ondoan argi luze bat sortu zen. Han agertu zen nere lamia ederra, eta berarengana nindoanean, esan zidan sorginak:

—Geldi, zuk ezin duzu ukitu, bera

inork ezin du ukitu, bestela bera desagertu egingo da eta ez duzu berririo ikusiko.

Nere lamia ederra hizketan hasi zitzaidan, zer gertatu zitzaion eta zergatik desagertu zen mundu honetatik kontatzen:

—Behin agertu ziren salatzaile batzuk esanez sorgina bizi zirela eta sorginkeri hori bukatuko zutela beraiek laister. Sorginek hilabetean behin Akelarre bezalako festatxo bat egiten zuten.

Gau hartan ni, hemen zegoen koban hartara joan nintzen, sorginek zer egiten zuten ikusteko, eta jai hura asko gustatu zitzaidan. Bina koban harri-patu ninduten bi sorginek, eta orduan festa bukatutzat eman zuten. Asanblada bat osatu zuten, niri zer egin behar zidaten jakiteko, eta orduan sorgin zaharrenak, amona zeneko batek kondena bat ipini zidan.

Zaharrena izateagatik sorgin guztien nagusia zen eta harez esan zuen ni betirako lamia polita baina ikusigabea izango nintzela, baina egun bat nitaz maiteminduko zenak bere pentsamendurekin nire kristalezko etxea hautsiko zuela eta ni berriro pertsona izango nintzela.

Kasu honetan zu izan zara nitaz maitemindu dena eta nik ere maite zaitut, baina gure harremanak eta gure maitasuna ezinezkoak dira. Galdetuko diozu zure buruari zergatik ezin garen bizi eta elkar maite. Sorginkeria hautsita dago, bai, baina hemengo nire nagusiak esan zidan hurrengo egunean ni sekulan ez nintzela pertsona bat izango, zeren alde batetik sorginkeria hautsita zegoen, bai, baina amoniak bere buruarekin ere hautsi behar zuela sorginkeriarekin beste zatia, eta andere zahar hau aspaldi hil zela esan didate.

Gure maitasuna ezinezkoa da. Beraz ulertu beharra daukazu, maite zaitut. Denbora bukatu zait eta sekulan ezin izango dugu elkar ikusi. Tori nere opari hau eta maitasunez gorde ezazu, maite zaituz eta sekulan ez zaitut ahaztuko.

Agur... agur... agur... maite zaitut!

—Nik ere maite zaitut, ez esan agur, baizik eta gero arte, ez zaitut ahaztuko.

Nahiko interesgarria hau baina hori norbaiti gertatzen zaionean oso tristeak izaten da.

## KAZKARROAN

### Ortziren grabaketa

Ortzi Sakanako taldearen lehen diskoa dela eta, berari eskeinitako bertsoak

Bi urte osoz ibil zarete  
Euskadin jirabiraka  
abeslari ra instrumentuez  
zabalduz euskaldun folka  
grabatzeko garaia  
heldu zaizue ia  
ta hor zaudete estulka  
ez ote da ba eskusa hutsa  
hain zaudete bildurtuta?


Bertsolariak eta kantari  
badugu bertan aukera  
klasea utzita joanak dira  
elepea grabatzera  
Hiart da lehenengoa  
ta Maider hurrengoa  
Aitziberrekin batera  
norbaitek kale egingo balu  
hemen guztiok prest gera

Oskorri ere hola hasi zen  
zuek zer dela ta ezin  
rapa jadanik pasatu da ta  
folkiak zuek «hasta el fin»  
ta ez inoiz lotsatu  
folkia aldarrikatu  
rockanrolari egin min  
etxe txikia izanagatik  
arrakastatu izan dadin

Holako gauzak gerta ohi dira  
gure artean tarteka  
ta ondorioz jarri beharko  
merezki duen arreta  
pandereta igurtzi  
aurrera segi Ortzi  
ez delako berriketa  
era onean osatu bedi  
zuen lehen grabaketa

Arbizuko bertso eskola

## HITZ GURUTZATUAK



**EZKER-ESKUI:** 1.- Eman ezak. Bizkaieraz. Lepo. 2.- Garai berekoa. 3.- Olatu. Pluralean. oinarriko edaria. 4.- Nortasun agiri nazionala. Errate. 5.- Sufrearen sinbolo kimikoa. Bide. Bat. 6.- Saila. Humorezko kolpea. 7.- Italiako moneta. Zaude. 8.- Zenbatugarri. 9.- Ez zuzen. Toka, nuen.

**GOITI-K-BEHERA:** 1.- Gaur. Aldamen. 2.- Mahatsondo multzoak. 3.- Ez astun. Zuhaitz mota. 4.- Erronkarieraz, han. Hilik erditzen den umeki. 5.- Iodoaren sinbolo kimikoa. Emakume izena. Kontsonantea. 6.- Ikusmenaren bidez gauzen irudiak hartu. Mendebaldean, zen. 7.- Daude. Ogi. 8.- Udako oporrak iragaterakapotik etorri ohi dena. 9.- Indar falta edo makaltasuna. Zerbaiten goiko alde.

### Zaharrak berri

Giblean ez du horrek harri asko

Gizon sendoa eta gozoaz esanda

Arant

Bertzeren eskutik ogia xur

Besteren eskutik jan behar duenak, jan laburra

Ziga (Baztan)

—Aita, arrainek zergatik ez du hitzik egiten?

—Hori ez al dakik? Ahoa urez bide ezak eta saia hadi hitzegiten!



## Bizi Bizian

**N**afarroako ijitoak biltzen dituzten elkarteek federazio bat osatzeko erabakia hartu zuten duela bi aste eta ondorioz zenbait ordezkari aukeratu

dute, Nafarroako Gobernuaren aurrean arazoak konpontzeko eta eskakizunak egiteko. Federazioaren barruan nafar ijito gehienak bilduta egongo direla eta bene-

tako ordezkariak osatu dela esan daiteke, arazo nagusiei irtenbidea eman asmoz. Bereziki etxebizitzarena, hori bait da beren kezkarik handiena.

# Nafar ijitoak, federazioan elkartuta

MATTIN KAPITANSORO / TUTERA

Federazio hau sortzeko asmoa joan den astean gorpuztu zen Tuterako Romani elkartearen egin zen bileran, bertan bildu bait ziren Nafarroako ijitoen ordezkari gehienak. Hortik ateratako ordezkariak Nafarroa osoko ordezkariak izango dute. Horrela, Tuterako Romaniren partetik Ricardo Hernandez aukeratu zuten, Lizarrako elkartetik, Jose Duval Arrieta; Jose Luis Jimenez, Lodosatik eta Hermenegildo Jimenez Jimenez, Iruñeko Majaritik.

Federazioa sortzeko helburu nagusia, partaideen beraien esanetan, «egitasmu bateratuak egitea herri ijitoarendako, ikuspuntu zabal batetik ikusita». Horretarako, aukeratuak lau presidente horiek ijitoen ordezkariak izango dira Nafarroako Gobernuaren aurrean, «arazoren bat dagoenean edota komenigarria ikusten den bakoitzean, bilerak eskatu arazoak konpontzen saiatzeko».

Egun sei ijito elkarte daude Nafarroan, hiririk garrantzitsuenetako familia gehienak beren baitan biltzen dituztenak. Lehendabizikoak 1982an sortu ziren Iruñean eta Tuteran —Majari eta Romani— eta Ricardo Hernandez azken horretako presidentek adierazten duenez, bi horien emaitzak ikusi eta gero sortu zen beste herrietan gauza bera egiteko asmoa.

Horrela, Ribaforada, Lizarra, Tafalla eta Lodosan eratu ziren ondoren

elkarteak eta aurten, Caparroso eta Zarrakastelun ere beste bi martxan hasteko asmo sendoa badago.

Elkarte bakoitzean biltzen diren familiak tokian tokiko populazioaren gehiena izanda, kanpoan gelditzen dira «dagoeneko gizarteratuta daudenak», Hernandezen esanetan, hau da, horrelako elkarteek dituzten helburu nagusienak nolabait konpontuta dituztenak.

Ijito elkarten benetako garrantzia ulertzeko esan behar da Tuteran, kasu, 110 familia ijituetatik 90 elkartearen daudela. Beste herri guztietako kopuruak antzekoak dira: Iruñean 200 familia daude, Lizarran 70-80, Tafallan 30-40, Lodosan 25-30 eta Ribaforadan 20.

Arazo nagusia etxebizitza da toki guztietan, eta horretara daude bideratuta helburu guztiak. Hernandezen esanetan, «Nafarroako Gobernutik jasotzen dituzten dirulaguntza guztiak aldatu egingo lituzke Romani elkarteak etxebizitzaren arazo konpontzearen truke». Azken hilabete honetan 12 milioi pezetako dirulaguntza jaso du elkarte honek mintegi-baratzak paratzeko dituen asmorako eta baita hurrengo egoitzarako erabiliko diren lokalak txukundu eta egokitze-

ko ere, eta urtearen buruan 30 milioi pezeta jasoko du.

Egoera oso larria da leku askotan, eta gaur egun oraindik etxe batzutan ez dago ezta bainugelarik ere. Hori dela eta, funtsezkotzat jotzen dute ijitoek arazo hau konpontzea ondoren etor litezkeen helburu guztiak bete ahal izateko: «Gizartearekin bat egitea benetan nahi baldin badugu —eta hori da gure helbururik gorena—, etxebizitzaren arazo konpontu behar

dugu ahalik eta lasterren», dio Hernandezek.

Hain zuzen ere, eta Ricardo de Leon Ongizate Saileko kontseilariak astelehenean izandako bileratik pozik atera ziren ijitoen ordezkariak, «hemendik aterabideren bat lortuko dugulakoan bait gaude, bai berregokituta izan diren etxeetan nola besteetan ere». Orain dela gutxi, baina,

Tuteran babes publikoetako zenbait etxebizitzetako eskaera egin zuten hamabost familiek, baina ez zuten ontzat hartu eskaera bat bera ere.

Nafarroako ijito guztiak batzeko elkarte sortzeko asmo hau ez da aintzindaria Euskal Herrian, Araban ere antzeko elkarerik egon, bada-goelako, baina azpimarratzekoa da Nafarroan hartu duen indarra eta egin duen lana. Izan ere, 'payoen' gizar-tean sartzeko ahalegin guztiak ez dira soberan.



## Tuterako La Romani, elkarte antolatua eta eragileena

M.K. / IRUNEA

La Romani Tuterako elkarte da, dudarik gabe, eragileena eta antolatua Nafarroako ijitoen artean. 1982an sortu zen, Iruñeko La Majari elkartearekin batera, eta urte hauetan egindako lana izugarri positibotzat jo dute bai bertako ijitoek nola Nafarroako Gobernuak ere. Egindako lana eta onspen horren lekukoak, aurten elkarteak jasoko dituen hogeitamar milioi pezetako dirulaguntzak, gizarte lana arloan burutzeko aurkeztu dituzten egitasmok di-  
rela eta.

Honen arrakastaren arrazoiez galdezkatzerakoan garbi mintzatzen da Ricardo Hernandez bertako presidentea: «Tuterak merezia zuen ho-

relako elkarte, oso jende animatua bait dago hemen eta lan asko egiten duelako. Gainera, oso presidente ona dugu».

Hasieran soilik topagune eta biltzeko aitzakia izan bazen ere, gaur egun bertatik egiten den lanak ijitoen hezkuntza orokorra eta 'payoen' gizar-teran integratzea du helburua. Horretarako bi gizar-teran langile dituzten elkarteak, eta azpimarratzekoak dira bertan egiten ari diren alfabetizazio ikastaroak. Orobat, etxeetako garbitasunari buruz jabetze kanpainari ekin zion joan den urtean elkarteak, oso emaitza positiboekin.

Aurten aurkeztutako egitasmok 30 milioi pezetako dirulaguntza eman diote elkarteari, hiru zatitan banatuko dena. Lehendabizikoa, 12

milioi pezetakoa, joan den urtarrian jaso zen eta diru honekin hamazortzi gazteendako ikastaroak egingo dira sei hilabetez. Horrekin batera, berotegi-mintegiak paratu eta Patio kaleko egoitza berriro egokitze lanak burutuko dira.

Berotegiak 'La Obra' izeneko eraikuntza kokatuko dira, eta bertan hamabi pertsonak egingo du lan sei hilabetez, nekazaritza arloan. Proiektuaren aurrekontu osoa hogeit hamar milioi pezetakoa da, eta ikastaroaren helburu nagusia nekazaritza gazte hauen ogibide bilakatzea da.

Dirulaguntzaren bigarren zatia egoitza berriroko lokalak egokitzeko

izango da, eta bertan igeltsero eskola tailerra paratuko da martxan. Lokalean sei gazte arituko dira beste sei hilabetez, eta honekin gazte hauek ondoren arlo berean aritzea lortu nahi da.

Egitasmok pasa den urtarriaren 4ean hasi ziren martxan, zortzi ordutako lana eta bi ordutako ikastaroekin, eta lehendabizikoak baino ez badira ere, beste arloetara zabal daitetzkeelakoan daude 'Romaniren' partaideak. Bitartean, emaitzen es-  
peroa daude.



## Victor Moreno .....irakaslea

**E**gun Txantreako Arturo Cam- pion ikastetxe-ko zuzendaria, Victor Moreno ezaguna da oso Nafarroako hezkuntza arloan gazteen artean irakurmena bultzatzeko egin di- tuen lanak eta ikastaroak direla eta. Li- buruzale amorratua, irakurketak haurren

heziketan duen garrantzia aldarrikatu du artikulu frankotan, eta honi buruz bi li- buru idatzita —'El deseo de leer' ('Ira- kurtzeko desira') eta 'El juego poético en la escuela' ('Joko poetikoa eskolan')—, hirugarren bat argitaratuko du laster: 'El deseo de escribir' ('Idazteko desira').

## «Soilik gaixoeak irakurtzen dute»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

**EGUNKARIA.**— Zu oso lotuta zaude eskoletan irakurmena bultzatzeko saio eta teknikekin. Zein da liburu eta irakurketen funtzioa heziketa orokor baten barruan?

**VICTOR MORENO.**— Nere ustez, funtsezkoa. Irakurtzea norberaren ekintza da, bakarra eta autonomoa. Nor bere bakartasunaren aurrean. Eta hori horrela izanda, bertan bakoitzak bere askatasuna garatu ahal du. Irakurtzea askatasuna da, neurri batean, eta nere ustez hori da inolako oztoporik aurkitzen ez duen askata- sun bakarra. Beste guztiak ez dira egiazkoak. Hain zuzen ere, horre- gatik jendeak ez du irakurtzen, jendeak beldurra diolako bakarrik egoteari. Beste gainerako gauza guztiak —ohitura falta, hizkuntza zailtasunak eta abar...— gezurrak dira. Adibidez, beti egiten dira kan- painak haurren artean irakurketa bultzatzeko, eta horiek dira irakur- tzen duten bakarrak. Helduek ez dute irakurtzen, haien ustez, jadanik 'hel- duak' direlako. Nere ustez, irakurle onak egiteko idazle onak egin behar dira, eta ez aldrebes. Ez naiz profesio- nalez ari, horretarako dedikatuko direnez. Ari naiz hitzen balorea aur- kituko duten gazteei buruz. Idazte- rakoan gustora irakurriko zenukeen obra idazten ari zara, eta horra lotura. Hala ere, irakurleak sortzen badituzu ez duzu idazleak sortzen, eta, akaso, ezta irakurleak ere. Idazten duen pertsona kritikoa da, normalean, idaztea pentsatzea bait da, baina gehiago irakurtzen duena ez da kri- tikoagoa edo sortzaileagoa, eta ho-

regatik garrantzitsuagoa da umeek pentsatzea irakurtzea baino. Kritika eta pentsamendurako joera lortzen bada, are hobeki.

**EGUNKARIA.**— Gauza guzti horien artean, esan duzu irakurtzea askata- suna ere badela. Zein da hor idazle- ren eginkizuna? Askotan manipula- zioa ere agertu bait daiteke...

**MORENO.**— Manipulazioaren arazoa idazlearen aldetik beti dago hor, bai- na manipulazioa norberak nahi du- naren neurrian izaten da. Irakurtze- rakoan aldeko eta kontrako senti- menduak sortzen dira, eta bakoitzak dituen baloreen arabera, onartzen edo muzin egiten die. Idazleak pro- bokatu egin behar du, dudarik gabe, errealitatea ez ohizko ikuspun- tuetatik ikustaraz- teko. Hor ere ba- daude desberdin- tasunak, irakurle helduak bizitzan daukana bilatzen bait du. Burua zuritzea, finean.

**I**rakurle helduek beren bizitzan dituzten gauzak bilatzen dituzte liburuetan. Burua zuritzea, finean. Haurrek, aldiz, beren mundutik alde egiteko irakurtzen dute».

Haurrek, aldiz, beren munduetatik aldegitiko irakurtzen dute. Orduan, zer ateratzen dugu irakurketatik? Nik gusto nuke irakurtzeak irakurlearen emanpizazioa ekarriko balu, baina bakoitzak bere erara hartzen ditu hitzak eta liburuak.

**EGUNKARIA.**— Baina testuetan dau- den gauza onak eta txarrak bereiz- teko haurrek ez dute heziketa behar da, ezta?

**MORENO.**— Nik dena irakurtzen uz- ten diet, oraindik ez bait dago oso garbi haur batek zer bereganatzen duen irakurtzen dituen gauzetatik. Badago literarioki oso txarra den haurrendako literatura, eta, aldiz, pe- dagogikoki oso onuragarria. Enyd Bliitonen 'Bostak', kasu. Haurrek oso egoera polita ikusten dute hor, baina



Victor Moreno.

literarioki benetan txarrak dira. Ho- rrela, aukeratzea hain zaila izanda, nahiago dut haiek aukeratzea. Ez ba- zaie zerbait gustatzen, utz dezatela, eta kitto. Horrela, haurrak berak ikasten du bere gustuak bereizten. Badaude sekulan irakurtzen ez duten haurrak, baina hori ez da arazorik, haur horiek bizi, bizi egin bait dira. Soilik gaixoeak irakurtzen dute. Ba- daude, bestalde, oso berekoiak di- renak, eta horiei ez zaie irakurtzera animatu behar, beraiek modeloak eta adibideak behar dituztelako, eta ira- kurtzeko joera dutelako, eta hor aur- kitzen dituzte. Baina jokatu eta ongi

pasatzeko eskolatik atera nahi dute- nek ez dute irakurketaren beharrik, haurrak, berez, bizi egin behar due- lako. Zertarako balio du irakurtzeak, kritikoagoak izateko? Zertarako? Irudimen handiagoa izateko? Zer- tarako? Azken finean guzti hori moztzen digute eta... Irakurketaren baliorik garrantzitsuena, nere ustez, bakarrik dastatzean datza. Hau da, norberarengan hasi eta bertan amaiz- ten da.

**EGUNKARIA.**— Eta zer eragin izan dezakete beste bizioek, telebista, kasu, irakurtzeko ohiturarekin amaiz- teko?

**MORENO.**— Nik asko maite dut te- lebista, telebista saio on bat edozein motatako liburu txar bat baino onu- ragarria bait da. Gainera, telebista eta liburuak elkarren kontra paratzea, haurrek irakur ez dezaten modurik errazena da. Liburuek telebista baino hobekak direla erakutsi behar dute. Haur bat telebistak txoratuta badago, aztertu egin behar da zer eskaintzen dion telebistak, gero antzeko libu- ruak emateko. Gurasoek esaten dute maiz umeek ez dutela irakurtzen te- lebista hor dagoelako baina hori ez da egia.

Telebistak ez dio astirik kentzen irakurketari, eta askotan telebistak laguntzen du irakurtzen hasteko. Arazoa da umea etxean bakarrik baldin badago, irtenbide bakarra te- lebista dela, eta hori garbi dago. Ba- tzuek esaten dute telebistak amaitu duela liburuekin, baina hori gezurra da. Orain inoiz baino gehiago ira- kurtzen da, lehen ez zelako deus ira- kurtzen. Gainera, telebistak bes- teengan dituen ondorio txarrak ikus- tea oso erraza da, baina ez norbera- rengan dituenak. Nere ustez, telebis- tari eta beste komunikabideei egin dakieken kritika zera da: jakituria zedatu eta murrizta sortzen dutela, eta horri eusteko baliabideak direla. Hori da larriena.

**EGUNKARIA.**— Lehen aipatu duzu umeek helduek baino askoz gehiago irakurtzen dutela. Nola sortzen da haustura hori?

**MORENO.**— Nere ustez, eskoletatik pasa diren haur gehienek eskolaren- dako irakurtzen dute, eta ez beraien- dako. Orduan, eskola desagertuta, uzten zaio irakurtzeari. Norberak be- re baitarako irakurtzen badu, hori gelditu eta mantentzen da, eta hori da lortu behar dena. Zerbaiterako ira- kurtzen bada, akabo, irakurketa, be- rez, zerbait osoa da. Bertan hasi eta bertan bukatzen dena.

NOSKI JATOR

ZVLDI ERBA

